BASAURIKO KIROL ELKARTEETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO HELBURUA DUEN EGITASMOA.

PROYECTO DIRIGIDO A FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LAS AGRUPACIONES DEPORTIVAS DE BASAURI.

ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

CONDICIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO DE SERVICIOS

HELBURUAK ETA EGITASMOA KONTRATATZEKO JUSTIFIKAZIOA

OBJETIVOS Y JUSTIFICACIÓN DE LA CONTRATACIÓN DEL PROYECTO

ZERBITZUAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Kontratu honen helburua da Basauriko ume eta gazteei euskaraz egiteko aukera kirolaren esparrura zabaltzea. Horretarako kirol elkarteekin batera lantzeko egitasmoa diseinatu, kudeatu eta garatu nahi dugu, ume eta gazteek praktikatzen duten kirolean euskararen erabilera bultzatzeko.

OBJETO Y OBJETIVOS DEL SERVICIO

El objeto de este contrato es extender la posibilidad de que los niños y jóvenes de Basauri puedan expresarse en euskera al ámbito deportivo. Para ello se pretende diseñar, gestionar y desarrollar un programa de trabajo conjunto con las asociaciones deportivas para impulsar el uso del euskera en el deporte practicado por niños y jóvenes.

Kirola da EAEko ume eta gazteen sozializazio-eremu funtsezkoenetarikoa, kirolak egiten du eskola eta kalearen arteko zubilana. Eskola eremuan euskaldundutako gazte belaunaldi berrien eskolaz kanpoko jarduera nagusia da, eta horrek estrategiko bilakatzen du kirola euskarazko erabilera ohiturak finkatzeko bidean. Hori dela eta, kirolean euskara sustatzeko egitasmoaren helburu nagusia ume eta gazteen euskararen erabileran eragitea da.

El deporte es uno de los ámbitos fundamentales de socialización de la población infantil y juvenil de la CAPV, que hace de puente entre la escuela y la calle. Se trata de la principal actividad extraescolar de las nuevas generaciones de jóvenes euskaldunizados en el ámbito escolar, lo que convierte el uso del euskera en estratégico en la consolidación de hábitos. Por ello, el objetivo principal del programa de fomento del euskera en el deporte es incidir en el uso del euskera por parte de niños y jóvenes.

Helburu zehatzak:

Basauriko Euskararen plan estrategikoan, Aroa planaren barruan kokatzen da programa hau, eta helburu zehatzak hauexek dira:

Objetivos específicos:

Este programa se enmarca dentro del Plan estratégico de euskera de Basauri, AROA y sus objetivos específicos son:

- Euskararen erabilera eta presentzia sustatzea eta areagotzea kirol-elkarteetan, bai entrenamenduetan, bai partiduetan eta kirol-jardueretan eta gainerako ekitaldi publikoetan.
- Elkarteetan euskara planak sustatzea. Kirol-elkarteek euskararen aldeko jarrera eta jokaera sustatzea eta euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzea, bai kluben kanpoko komunikazio ofizialetan (kartelak, propaganda, sare sozialak),

- Fomentar e incrementar el uso y la presencia del euskera en las asociaciones deportivas, tanto en los entrenamientos como en las actividades deportivas y demás eventos públicos.

- Fomentar los planes de euskera en los clubes.
  Fomentar la actitud y la actuación en favor del euskera en las asociaciones deportivas y fomentar el uso oral y escrito del euskera, tanto en las comunicaciones oficiales externas de los clubes (carteles, propaganda, redes sociales) como

bai barrukoetan (familiekin, bazkide eta kirolariekin, eta abar).
- Kirol esparruan entrenatzaile eta jokalari euskaldunak aktibatzea.

- Kirolean euskararen prestigioa handitzea. Dinamika eredugarriak dituzten kirolarien eta entrenatzaileen hizkuntza-ohiturak azpimarratzea. Horrela, gazteek euskararekiko duten pertzepzioa aldatu eta kirol-espazioak euskararekin lotzeko bidea irekiko da.

ZERBITZUAREN NONDIK NORAKOA

Egitasmoaren bitartez zerbitzu hauek emango ditugu:

1.- Kirol-elkarteetako arduradunekin sentsibilizazioa landu eta aholkularitza eskaini elkartean euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeari begira: hizkuntza irizpideak euren lan dinamikan txertatzeko, euskara planak martxan jartzeko eta garatzeko,...

2. Entrenatzaile euskaldun eta ia euskaldunei prestakuntza eskaini, ahalik eta praktikoena haien jardunean euskararen erabilera indartzeko: entrenatzaileentzako formazioa, aholkularitza, proposamen zehatzak eta horien jarraipena, entrenamenduetan, partiduetan eta kirol ekitaldietan euskararen erabilera gero eta handiagoa izateko (kirolarien artean, kirolari eta entrenatzaile, eta kirolari eta epaileen artean).

3.- Kirolari eta entrenatzaileekin dinamika eredugarriak landu. Euskararen erabilerari dagokionez kirolari eta entrenatzaileen praktika onak aitortu eta zabaldu. Erreferenteak bilatu eta ekintzak antolatu kirolean euskarari prestigioa emateari begira eta euskararen erabilera aktibatzeari begira.

4. Udalak elkarteei begira martxan dituen zerbitzu eta dirulaguntzen berri eman: entrenatzaileek euskara ikasteko, eta elkartearen irudi korporatiboan,

internas (con las familias, con los y las miembros y deportistas, etc.).

- Activar a los entrenadores y entrenadoras, y jugadores y jugadoras euskaldunes.

- Aumentar el prestigio del euskera en el deporte. Resaltar los hábitos lingüísticos de deportistas y entrenadores que tienen dinámicas ejemplares. De esta manera, se cambiará la percepción de la juventud sobre el euskera y se abrirá el camino para vincular los espacios deportivos con el euskera.

NATURALEZA DEL SERVICIO

A través del proyecto ofreceremos los siguientes servicios:

1.- Sensibilizar y asesorar a las personas responsables de las asociaciones deportivas en la promoción del uso y presencia del euskera en la asociación: para integrar los criterios lingüísticos en su dinámica de trabajo, para la puesta en marcha y desarrollo de planes de euskera,....

2.- Formar a entrenadores y entrenadoras vascoparlantes y cuasi-euskaldunes de la forma más práctica posible para reforzar el uso del euskera en su actividad: formación a entrenadores y entrenadoras, asesoramiento, propuestas concretas y seguimiento de las mismas, para aumentar progresivamente el uso del euskera en entrenamientos, partidos y eventos deportivos (entre los y las deportistas participantes entre sí, de entrenadores y entrenadoras con deportistas y de ellos con los y las jueces y árbitros).

3.- Trabajar con deportistas y entrenadores y entrenadoras dinámicas ejemplarizantes. Reconocer y difundir las buenas prácticas de todos ellos en el uso del euskera. Buscar referentes y organizar acciones para prestigiar el euskera en el deporte y activar su uso.

4.- Informar sobre los servicios y subvenciones que ofrece el Ayuntamiento: subvenciones para el aprendizaje de euskera por parte de entrenadores y entrenadoras y para

webgunean eta abar euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak, testuak itzultzeko eta zuzentzeko doako zerbitzua, "Beharsarea" plataforma entrenatzaile euskaldunak bilatzeko,… eta Bizkaiko Foru Aldundiak martxan duen BIKKE programa.

5. Kirol klubetako bazkide diren familiak programan inplikatu, haiek ere programaren garapenean parte har dezaten: partiduetan eta kirol ekitaldietan animoak euskaraz emateko, euskararen erabileraren inguruan motibatzeko,…

6.- Komunikazioa landu. Herriko eta eskualdeko komunikabidetan ekimenaren berri emateko prentsa-oharrak prestatu. Kirol klubetako parte-hartzaileekin haien komunikazioak euskaraz ere izan daitezen lanketa egin.

fomentar el uso del euskera en la imagen corporativa de la asociación, en la página web, etc., servicio gratuito de traducción y corrección de textos, plataforma "Beharsarea" para encontrar entrenadores y entrenadoras euskaldunes,... y el programa BIKKE de la Diputación de Bizkaia.

5.- Implicar en el programa a las familias socias de los clubes deportivos para que participen en el desarrollo del programa: animar en euskera en partidos y eventos deportivos, motivar hacia el uso del euskera,…

6- Trabajar la comunicación. Elaborar notas de prensa para informar sobre la iniciativa en los medios de comunicación locales y comarcales. Trabajar para que las comunicaciones de los participantes de los clubes deportivos sean también en euskera.

Hartzaileak:

Programa haur edo gazte taldeak dituzten klub eta kirol-elkarteentzat da.

Destinatarios/as:
El programa está dirigido a clubes y agrupaciones deportivas con grupos infantiles o juveniles.

Programaren kontrola eta jarraipena:

Esleipendunak kontratazio-aldian aurreikusitako esku-hartze guztiak jasotzen duen kronograma aurkeztu beharko du, eskatutako zerbitzu guztiak betetzeko.

Programaren jarraipena egiteko hiru hileroko txostenak egin beharko ditu enpresak, eta datu basea osatuko du, denboraldiz denboraldi euskararen erabileraren alde emandako urratsen bilakaera ikusteko. Horretarako Eusko Jaurlaritzak zabaldutako "Eskola-orduz kanpoko diagnostikoa egiteko tresna" egokitu eta erabiliko du.
Denboraldiaren amaieran ebaluazio-txostena emango zaio Basauriko Udalari.

Control y seguimiento del programa:
El adjudicatario deberá presentar un cronograma que recoja todas las intervenciones previstas durante el periodo de contratación para el cumplimiento de todos los servicios requeridos.

Para el seguimiento del programa, la empresa deberá realizar informes trimestrales y completar la base de datos para ver la evolución en el tiempo de los pasos dados a favor del uso del euskera. Para ello, la empresa utilizará la aplicación denominada "Eskola-orduz kanpoko diagnostikoa egiteko tresna" (Herramienta de diagnóstico extraescolar) distribuida por el Gobierno Vasco.
Al final de la temporada se entregará el informe de evaluación al Ayuntamiento de Basauri.

Koordinazio-lanak.

Koordinazioa Euskara Zerbitzuarekin egingo da, eman beharreko zerbitzuaren garapenari dagokion guztian. Basauriko Udalak jardueren garapenari buruzko informazio zuzena eta zehatza jaso beharko

Labores de coordinación.
La coordinación se realizará con el Servicio de Euskera en todo lo relativo al desarrollo del servicio a prestar. El Ayuntamiento de Basauri deberá recibir información precisa y detallada del desarrollo de las actividades. Por tanto, se realizarán reuniones trimestrales de coordinación.

du. Beraz, hiruhilabeterik behin koordinazio-bilerak egingo dira

Enpresa esleipendunak gutxienez koordinatzaile edo arduradun bat izendatuko du, kontratistaren plantillakoa, eta solaskidea izango da programa garatzeko lan guztietarako.

Zereginak zerbitzuaren barruan.
Kirol elkarteen eguneroko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko programa diseinatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzuak honako zeregin hauek izango ditu:

1. Zuzendaritza-taldeen lan-saioak:

Ikasturtearen hasieran eta amaieran aurrez aurreko bilerak egingo dira zuzendaritza-taldeetako ordezkariekin, elkarte bakoitzarekin bana. Bilera horietan, aldez aurretik jasotako informazioa eta adostutako erronkak izango dira abiapuntu.

2. Elkarteei aholkularitza eta baliabideak ematea.

   Arreta berezia jarriko zaie honako hiru atal hauei:

   - Familiekiko harremana
   - Ekitaldietarako irizpideak
   - Sare sozialak kudeatzeko aholkuak

3. Kirol-kluben komunikaziora bideratutako ekintzak:

Klubetako arduradunei eta entrenatzaileei aholkularitza eta baliabideak eskainiko zaizkie.

4. Entrenatzaileekin lan egitea:

Sentsibilizazio-saioak eskainiko zaizkie kirol-taldeetako entrenatzaileei, saioetan euskararen erabilera sustatzeari begirako proposamenak egingo zaizkie, eta prozesuaren jarraipena egingo da.

5. Kirolariekin lan egitea:

Partida osteko elkarrizketetarako prestakuntza emango zaie kirolariei, eta kirol elkartearen arduradunei.

La empresa adjudicataria designará al menos un coordinador o responsable, perteneciente a la plantilla de la contratista, que actuará como interlocutor en todos los trabajos de desarrollo del programa.

Tareas dentro del servicio.
El servicio de diseño, gestión y desarrollo del programa para la promoción del uso del euskera en las actividades cotidianas de las asociaciones deportivas tendrá las siguientes funciones:

1. Sesiones de trabajo de los equipos directivos:
   Al inicio y al final del curso se realizarán reuniones presenciales con representantes de los equipos directivos, una con cada asociación. En estas reuniones se tratará la información recibida previamente y los retos acordados.
2. Asesoramiento y recursos a las asociaciones.
   Se prestará especial atención a los siguientes tres apartados:
   - Relación con las familias
   - Criterios para los eventos
   - Consejos para la gestión de redes sociales
3. Acciones dirigidas a la comunicación de clubes deportivos:
   Se ofrecerá asesoramiento y recursos a responsables de clubes y entrenadores.
4. Trabajar con entrenadores y entrenadoras:
   Se ofertarán sesiones de sensibilización a entrenadores y entrenadoras de equipos deportivos, se realizarán propuestas para impulsar el uso del euskera en las sesiones de entrenamietno, y se realizará el seguimiento del proceso.
5. Trabajo con deportistas:
   Se formará a las y los deportistas y a responsables de la agrupación deportiva para las entrevistas post-partido.

6. Programaren jarraipena.

Enpresa esleipendunak hiru hilean behin eta ikasturtearen amaieran, egindako lan eta jardueren inguruko eta taldeen egoeraren inguruko txosten zehatza aurkeztuko du Udalean. Txosten horretan jasoko da: helburuen jarraipena eta betetze maila, kirol taldeetan ze talde dagoen eta nortzuk parte hartzen ari diren programan, ze ekintza burutu diren, zein izan da parte-hartzea,…

Jarraipenari begira galdetegia sortuko da eta bi aldiz pasatuko zaie kirol klubei eta entrenatzaileei, denboraldiaren hasieran eta amaieran. Horrela, bilakaeraren bat izan den ikusiko da, eta programaren urteko balorazioan egindakoa ere baloratzeko neurgailu baliagarria izango da.

Kirolari eta familien balorazioak ere jasoko dira urteko balorazioan.

ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Programa denboraldika gauzatuko da, hau da, kontratua urtekoa izango da, eta elkarteekin egingo diren lanak denboraldika gauzatuko dira: kirol elkarteek denboraldia prestatzen hasten direnetik denboraldia amaitutzat ematen dutenera arte. Lehenengo urtean lizitazioa ebazteko epeak direla eta, kontratua 2025eko otsailaren 15ean hasiko da edota kontratua sinatzen den egunean hori baino beranduago bada, eta 2027ko ekainaren 30ean amaituko da.

Lehenengo urtean kirol elkarteekin euskararen erabilera sustatzeko lanak hasi orduko kontuan hartuko dira 2024ko irailaren 2tik aurrera, kontratu hau martxan ipini arte egindako bilerak, lanak eta eskuhartzeak; horiek txosten batean jasota egongo dira eta udaleko Euskara Atalak enpresa adjudikaziodunari helerazioko dio.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, jaiegunetan izan ezik. Nolanahi ere, zerbitzua asteburuan eman beharko da, programatutako jarduerak horrela eskatzen duenean, adibidez denboraldi amaierako txapelketan.

6. Seguimiento del programa.

La empresa adjudicataria presentará trimestralmente y al final del curso escolar en el Ayuntamiento un informe detallado de los trabajos y actividades realizadas y de la situación de los grupos. Este informe recogerá el seguimiento y grado de cumplimiento de los objetivos, qué equipos hay en cada club y quiénes están participando en el programa, qué acciones se han llevado a cabo, cuál ha sido la participación,...

De cara al seguimiento se creará un cuestionario que se pasará dos veces a los clubes deportivos y entrenadores al inicio y al final de la temporada. De esta manera, se comprobará si ha habido alguna evolución y se dispondrá de un medidor útil para valorar lo realizado en la valoración anual del programa.

La valoración anual incluirá las valoraciones de deportistas y familias.

CALENDARIO Y HORARIO DEL SERVICIO

El programa se desarrollará por temporadas, es decir, el contrato será anual y los trabajos con las asociaciones se realizarán por temporadas: desde el inicio de la preparación de la temporada por parte de las asociaciones deportivas hasta la finalización de la misma. Teniendo en cuanto los plazos de resolución de la licitación el primer año, el contrato se iniciará el 15 de febrero de 2025 o en la fecha de firma del contrato si esta es posterior y finalizará el 30 de junio de 2027.

Para el inicio de los trabajos de fomento del uso del euskera con las asociaciones deportivas durante el primer año, se tendrán en cuenta las reuniones, trabajos e intervenciones que se hayan realizado desde el 2 de septiembre de 2024 hasta el momento de la puesta en marcha de este contrato, que se plasmarán en un informe que será facilitado a la empresa adjudicataria por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento.

El servicio se prestará de lunes a viernes, excepto festivos. En todo caso, el servicio deberá prestarse en fin de semana cuando la actividad programada así lo requiera, por ejemplo en el campeonato final de temporada.

ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALIABIDEAK

AZPIEGITURAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Enpresa esleipendunaren ardura izango da programa behar bezala aurrera eramateko materiala jartzea: saioetan erabiltzeko materiala, dinamizazioetarako baliabideak eta baliabide teknologikoak, telefonoa, ordenagailua, etab..

GIZA BALIABIDEAK

Giza-baliabideei dagokienez egitasmo honetan enpresak koordinatzaile-arduradun bat izendatuko du, bera izango da koordinazio orokorraz arduratuko dena, programa diseinatuko duena eta udaleko Euskara atalarekin harremanetan egongo dena.

Koordinatzailearekin batera kirol elkarteekin arituko den dinamizatzailearen figura egongo da, Enpresak behar beste dinamizatzaile kontratatuko ditu.

Koordinatzaileak, Hezkuntzarekin zerikusia duen unibertsitate gradua izango du: Lehen Hezkuntza, Pedagogia, Gizarte Hezkuntza,.., horietako bat, eta C1 titulua euskaraz edo baliokidea (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua), eta gutxienez 3 urteko esperientzia ume edo/eta gazteen artean euskararen erabileran eragiteko egitasmoetan koordinatzaile edo arduradun gisa.

Dinamizatzaileak Kirolarekin eta Aisialdiarekin lotutako titulazioa izango du, unibertsitate gradua edota Lanbide Heziketakoa, eta C1 titulua euskaraz edo baliokidea (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).

Era berean, zerbitzuko langile izan, eta lanean adin txikikoekin harremanetan dauden guztien aurrekari penal espezifikoen egiaztagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu enpresak, hain zuzen ere, sexu-delituei buruzkoak. Hala egiteko xedatzen du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzea arautzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan, bai kirolari eta entrenatzaileekiko harremanetan; eta familiekin edota zuzendaritza taldearekin

RECURSOS PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO

INFRAESTRUCTURAS Y RECURSOS MATERIALES

Será responsabilidad de la empresa adjudicataria aportar el material necesario para el correcto desarrollo del programa: material para las sesiones, recursos y tecnológicos para las dinamizaciones, teléfono, ordenador, etc.

RECURSOS HUMANOS

En cuanto a los recursos humanos, en este proyecto la empresa nombrará una persona coordinadora responsable, que será la encargada de la coordinación general, diseñará el programa y estará en contacto con el área de Euskera del ayuntamiento.

Junto con la persona coordinadora existirá la figura de la persona dinamizadora con las asociaciones deportivas, la Empresa contratará a cuantos dinamizadores y dinamizadoras sean necesarios.

El coordinador o coordinadora tendrá un grado universitario relacionado con la Educación: Educación Primaria, Pedagogía, Educación Social,.., uno de ellos y el título C1 en euskera o equivalente (Decreto 47/2012, de 3 de abril) y experiencia de al menos 3 años como coordinador o coordinadora o responsable de proyectos para incidir en el uso del euskera entre niños, niñas y/o jóvenes.

La persona dinamizadora deberá poseer titulación relacionada con el Deporte y el Tiempo Libre, grado universitario o formación profesional y poseerá el título C1 de euskera o equivalente (Decreto 47/2012, de 3 de abril).

Asimismo, la empresa deberá aportar documentación acreditativa de los antecedentes penales negativos de los delitos sexuales de todas las personas trabajadoras del servicio que tengan relación laboral con menores. Así lo dispone la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia.

La lengua de trabajo del equipo será el euskera, tanto a la hora de coordinar y programar las acciones, como en las relaciones con deportistas y entrenadores; y en las relaciones con las familias

harremanetan euskara eta gaztelania, euskarari lehentasuna emanda.
Kontratuaren xedea den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua euskaraz gauzatzea eskatzen dute.

Lanarekin lotutako txostenak euskaraz idatziko dira udaleko Euskara Atala hartzaile denean, eta euskaraz eta gaztelaniaz zabalpen orokorrerako direnean.

Enpresa esleipendunak programaren kudeaketa osoaren ardura izango du eta behar beste langile kontratatu beharko ditu.

Udalak, justifikatuta dagoen kasuetan, langilea aldatzeko eskatu ahal izango dio esleitutako enpresari.
Esleipendunari dagokio sor daitezkeen laneko bajak betetzea.
Programarako kontratatutako langileei dagokienez, enpresak edo erakunde esleipedunak laneko, Gizarte Segurantzako, lan-arriskuen prebentzioari buruzko eta abarreko legedia bete beharko dute.

y/o el equipo directivo serán el euskera y el castellano dando prioridad al euskera.

Las características intrínsecas de la prestación objeto del contrato exigen su realización en euskera.

Los informes relacionados con el trabajo se redactarán en euskera cuando el destinatario sea el Área de Euskera del ayuntamiento, y en euskera y castellano cuando sean para difusión general.

La empresa adjudicataria será responsable de toda la gestión del programa y deberá contratar el personal necesario.

El Ayuntamiento, en casos justificados, podrá solicitar a la empresa adjudicataria el cambio de personal.
Corresponde al adjudicatario cubrir las bajas laborales que se produzcan.
Respecto de los trabajadores contratados para el programa, la empresa o entidad adjudicataria deberá cumplir con la legislación laboral, de Seguridad Social, de prevención de riesgos laborales, etc.

ARANTZA ARANBURU OLABARRI - 11907799D

Firmado digitalmente por ARANTZA ARANBURU OLABARRI - 11907799D
Fecha: 2024.10.30 15:29:20 +01'00'